

Ezkio-Itsasoko Udal Osoko Bilkurak, 2015eko uztailaren 29ko Ezohiko Batzarrean erabakitakoaren arabera, Itsaso Bherria Elkarte Eragileak "Udalerrri Independientea Eratzeko Itsasoren Banaketa Espedienterako" dokumentua jendaurrean ikusgai jarri du 2015eko urriaren 20a arte, ongi irizten diren adierazpen edo erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Ezkio-Itsasoko Udal langileok, dokumentua aztertu ondoren, 2015eko urriaren 19an egindako Batzarrean erabakitakoaren bat etorritz, erabaki dugu honako adierazpen idatzi hau aurkeztea:

Lehenengo gure errespeto osoa agertzea Itsasotarrek herri independente bat eratzeko duten nahia eta horren inguruan hartutako edo hartuko dituzten erabakien aurrean, aldi berean baita errespeto osoa agertzea bai Ezkio-Itsasoko Udalak, Ezkioko Batzordeak eta abar gai honen inguruan har ditzakeen edozein erabaki edo proposamenen aurrean.

Hori alde batera utzita, Itsaso Bherriak aurkeztutako txostenetik garbi ondorioztatzen da hasitako prozedura honen ondorioz, edozein dela bere amaiera, nahi eta nahiez aldatuta nabarmena izango dela guretzat, eta honek kezka handiak sortzen dizkigu. Aurrerago, dokumentuan proposatzen den udal zerbitzuen antolaketari buruz gure iritzia emango badugu ere, gure aldetik bai garbi utzi nahi genuke, prozesu honen inguruan gutxienezko baldintza hauek errespetatzea eskatzen dugula:

1. Gutxienez, langile bakoitzak gaur egun ditugun lan baldintzak mantentzea.
2. Hemendik aurrera, Udal zerbitzuen antolaketaz, hitz egingo den edozein Batzordean partehartzeko eskubidea izatea, eta prozesua nola doan momentu guztian informatuta egotea.
3. Guri afektatzen dizkiguten erabakietan gure adostasuna izatea.

Itsaso Bherria Elkartearen txostenean jasotzen den Udal zerbitzuen antolaketara pasatuta, iruditzen zaigu nahiko nahasia dela zeren eta partekatze proposamena egiteko biztanleriaren ratioa erabili dela ematen badu ere, gero emaitzetan ikusiko den bezala hori ez da horrela kasu guztietan, eta gainera geratuko den beste herriaren iritzia eduki gabe ezin da gai honi buruzko behin-betiko proposamen bat osatu (jakin beharko litzateke Ezkiok zer mota eta mailako zerbitzuak nahi dituen bere udalerrientzat). Hori horrela bada ere, honako hauek dira aurkeztutako proposamenari bilatzen dizkiogun gabezi edo eztabaidatu beharreko aspektuak:

**- Idazkaritza, udal tramite administratiboak eta herritarrei zuzendutako arreta zerbitzuak:**

**ITSASORAKO PROPOSAMENA: GIZA BALIABIDEAK:**

- Administraria (%25eko lanaldia), partekatuta Ezkiorekin
- Idazkari-kontuhartzailea (%25eko lanaldia)
- Teknikari-koordinatzaile orokorra (%50eko lanaldia.

**Guztira: %100a**

**EZKIORAKO PROPOSAMENA: GIZA BALIABIDEAK:**

- Administraria (%75eko lanaldia), partekatuta Itsasorekin
- Idazkari-kontuhartzailea (%100eko lanaldia)

### **Guztira %175a**

Idazkari-kontuhartzailea, administraria : Gaur egungo gure egoera abiapuntuz hartuta, egiten dugun hausnarketa eta Udalaren jakinean jarri duguna behin baino gehiagotan da gaur egun ditugun baliabideekin ere nahiko juxtu gabiltzala sortzen den lanari aurre egiteko, bereziki arrazoi hauengatik: baja eta oporraldiak direnean ez dira ordezkapenak egiten, udalerrri honek biztanle asko ez baditu ere, industri asko dauka, azken urte hauetan exekutatu diren azpiegiturak direla eta , lan ikaragarri sortu dute, eta horregatik azken urteetan enplegu programak izan direnean kontratazioak egin dira Udaletxeko bulegoko lanak eguneratzen laguntzeko eta gure ustez errealitate honek horrela jarraituko du ere etorkizunean; bestalde herri bakoitzerako proposatzen den zerbitzu portzentajeak aztertzeke garaian ikusten dugu Ezkiorako aurreikusten dena ez dituela Itsasorako erabilitako ratioak mantentzen, gure ustez eta dugun esperientziaren arabera lan karga kalkulatzeko garaian, ez bakarrik biztanleriaren ratioa, baizik eta beste elementu garrantzitsuagoak badaude: udalerrriaren orubea, , zer mota eta mailako zerbitzua eskaini nahi den, industri kopurua, udalerrriak jasota dituen urbanizazioak, udalerrrian exekutatzen diren azpiegiturak sortzen duten lana, eta abar. Ez dugu ulertzen administraria partekatzeke planteamendua eta aldiz idazkari-kontuhartzaileari %100 Ezkion aurreikustea, bakoitzaren eginkizunak ikusita horrek ez dauka inongo zentzurik, horren adibide da Gipuzkoako ia herri guztietan (gure ustez denetan) bulegoko lanetarako zerbitzuak partekatu direnean beti izan dela idazkari-kontuhartzaile lanpostua partekatu dena. Azkenean gogorarazi behar da idazkari-kontuhartzaile lanpostua hornitzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak egin behar duela izendapen proposamena, eta Itsasoko txostenean gai hori zintzilik geratzen da.

### **- Itsasoko ondarearen eta azpiegitura publikoen zaintza, mantenua eta kudeaketa.**

#### **ITSASORAKO PROPOSAMENA: GIZA BALIABIDEAK:**

- Zerbitzu anitzetako langilea (%25eko lanaldia), partekatuta Ezkiorekin.
- Herri lan jakinetarako, zerbitzu kontratazio bidez kontratatuko da udalez kanpoko enpresetako pertsonala.

#### **EZKIORAKO PROPOSAMENA: GIZA BALIABIDEAK:**

- Zerbitzu anitzeko langilea (%75eko lanaldia), partekatuta Itsasorekin

Zerbitzu anitzeko langilearen lanpostuari dagokionez, orokorrean aurreko atalean egindako hausnarketa bera egiten da, gainera kasu honetan nabarmenago da, zeren eta azken 15 urte hauetan, beti ere urte guztian zehar langile bat edo bi kontratatu behar izan dira arlo honetan sortzen den lanari aurre egiteko.

- **Liburutegia, gizarte zerbitzuak, Bake Epaitegi zerbitzua.**

Proposamena: Ezkioko Udalean jarraitzea era honetan:

- Liburuzaina (%25eko lanaldia).

- Gizarte laguntzailea (%21,34 lanaldia)
- Bake epaitegiko idazkaria (%13,34 lanaldia).


Liburutegiko zerbitzuak, gizarte zerbitzuak eta bake epaitegikoak etorkizuneko bi udalerrien artean partekatutako izango direla aurreikusita, zerbitzu horietako langileen pertsonal gastuen zati bat Itsasoko Udalak Ezkiokoari ordainduko lioke, biztanleria ratioaren arabera (45. orria)

Lanpostu hauei dagokienez, aipatu behar da 37. orrian honela jasotzen dela hitzez hitz:


- Gizarte zerbitzuak (oinarrizko gizarte zerbitzuak eta etxez etxeko laguntza zerbitzua) Ezkioko eta inguruko udalekin partekatutako zerbitzua izatea proposatzen da, mankomunatua den neurrian.
- Bake epaitegi zerbitzua: Kasu honetan ere Ezkioko eta inguruko udalekin partekatutako zerbitzua izatea proposatzen da, mankomunatua den neurrian.
- Liburutegia: Itsasoko ekipamendua sortu arte, dagoen zerbitzua partekatuko da.

Ikusten den bezala bi orrien artean, kontraesana dago liburutegiko lanpostuari dagokionez, zeren eta baten mugarik gabe partekatzea proposatzen den bitartean, bestean esaten da Itsasoko ekipamendua sortu arte, gure ustez hau argitu egin behar da, eta modu batera izan nahiz bestera langileari orain daukan dedikazioa mantentzeko konpromisoa hartu behar da; bestalde guk ez dugu garbi ikusten partekatzen diren zerbitzu hauek nola planteatzen diren txostenean, Ezkioko Udaletxean bakarrik eskaintzea planteatzen den, edo bi Udaletxeetan eskaintzea (Bake Epaitegiko zerbitzuari dagokionez edozein kasuan banaketa emango balitz, herri bakoitzak bere erregistro zibila beharko luke); Bietan zerbitzua eman behar izanez gero kasu honetan ere biztanleria ratioaren araberako irizpidea zalantzan jartzen dugu, gainera duten dedikazio portzentaje txikia kontuan izaten badugu, zaila ikusten dugu denboraren banaketa egoki bat egin ahal izatea zerbitzua bi udalerrian eskaintzeko.

Ezki-Itsaso, 2015eko urriaren 19a



The image shows four distinct handwritten signatures in black ink, arranged vertically on the left side of the page. The signatures are fluid and cursive, typical of official documents.



The image shows a large, stylized handwritten signature or mark on the right side of the page. It consists of a long, sweeping horizontal line that curves upwards at the right end, with a small, sharp hook-like shape above it.